

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Josean Lopez Lauzirika

*Amorebieta-
Etxano, Bizkaia
(1934-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Etxanoko Nafarroan zegoen kale-baserri bakarrean jaio zen. Aita Larrabetzuko zuen eta ama herrikoa bertakoa. Ama Saturrarango kartzelan izan zuten preso hiru urtez beste hainbat herritarrekin batera. Ama kartzelatik irten zenean, parke ondoko pisu batera joan zen bizitzera, eta bere amak bertan zabaldu zuen taberna, "Bar Gloria". Umetan herriko bi eskolatan ibili zen Bilboko maristetara joan aurretik. Bilboko merkataritza eskolan ikasketak egin ostean, banketxean aritu zen lanean. Enartzera ezkondu zen.

Zintak

AMO-105

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-31
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

AMO-106

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-31
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxazarra, Ainhoa

Pasarteak

1. Ama Saturrarango kartzelan gerra garaian

- **Erref:** AMO-105/003
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:04:32. **Bukatu:** 00:08:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Ama Saturrarango kartzelara eraman zuten gerra garaian. Amaren familiako emakume ugari egon ziren kartzelan nazionalistak izateagatik; ama Zornotzako batzokiaz arduratu zen gerra aurrean denbora gutxian. Ama ona zen matematiketan, eta horri esker kartzelan kontabilitatea eramaten zuen.

Transkripzioa

- Eta ama Saturraranera zer dala-eta eroan eben?
- Zer dala-ta? nazionalista zalako!
- Baia zozetan ibiltzen zan herrixen?
- Keba, bai bueno euki zeuen bai, batzoki bera euki zeuen sasoi baten, baia denpora gitxi, bueno eske familia osoagaz egon zien: bera, beran izeko eta beren lehengusiña hamazapi urtegaz be egon zan han, ba famili osoa, familia osoa egon zien, egon giñen nazionalista zegaittik izango zan ba? hori dalako. Hori izen zan.
- Batzokixe euki eban zure amak?
- Bueno baia egon zan denpora gitxi, ez dakitz zemet denpora, ze egon zan probisional edo zozer, baia karo.
- Nun egon zan batzokixe ba?
- Zornotzan? bakizu nun dauen "la calle Luis Urrengoetxea", zein dan? Han egon zan, dau farmazixe, farmazi ganien egon zan batzokixe, gerran denporan baiño ariñau ta gero be be egon da hor, oin ya ez oin dauz "en calle Cantarranas"en dauz, baia bueno hor ez zan egon batzokixe horixe bakarrik, ze egon zan Aranzeta etxie, ein zeuen batzokixe, izen zan konstruktora, berak ein zeuen eta gero bueno, ez dala, herri guztiek ipini zeuen dirue hori eitteko, baia bueno.
- Eta zure amak ezer kontetan eban Saturraranekoa?
- Ez, ez. Bueno nire amak euki zeuen suerte pixka bat euki zeuen suerte. Ze nire ama beti izen da numerozko, osea kolejioan ibillitte ta mojetan, hemen egon zan "lan monjas" bakizu Zornotzan nun dauen?
- Oin bai.
- Oin, bai, bai, bai. "Las monjas", ez "el edificio de las monjas" egon zan hemen Etxanorantza hartzen dozu hemen, da etxe bat handixe, hor egon zan un "Colegio de monjas", [...] paseu baiño ariñau.
- Emaztea: kanpo-fubola ezagutzen dozu? ba han ingeruen.
- Eta bueno ba bueno numeroak eta hartun otsien "como como de furriel" osea berari "pa llevar las cuentas, de les daban un pan o no sé que" eta berak errepertidu ogixe ta bakizu, ba berak errepertiduten deu ta "el que reparte reparte siempre se queda" zozegaz, ezta? Ta ba eitten zeuen amak, ba igual herriko jentie egon zan han umiegaz, ume txikiñegaz, umiek kartzelan, ba titixe emoten ama eta bueno ba hareri ba igual sobretan badien hiru-lau ogi, ze antza jente asko egon zan geixorik ta ospitalien ta bueno berak euki zeuen, berak euki zeuen beren eskuen nozepeñien kendu ogi, ta izen zan horrerri emoteko "a las que estaban criando", ta horrerri emoteko ba lagunduten. Ta bera egon zan txarto egon zan, oso txarto, baia bueno "de lo malo malo malo pues" gosie behintzet bestiek baiño apurtxu bet gitxitxuau. Ze klaro ostu eitten zeuen, klaro! berentzako ta bere lagunentzako ze Zorrontzatik egon zien pillo bat Saturraranen, pillo bat hemedik egon ziren. Badiñotsut, beren izeko ta lehengusiñe be bai, hamazazpi urtegaz lehengusiñe, nire aman lehengusiñe Saturraranera aber ze, ta karo ha be izen zan politikiegaittik klaro, politikiegaittik.

2. PNV eta ANV Zornotzan

- **Erref:** AMO-105/011
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:21:28. **Bukatu:** 00:22:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Zornotzan PNVk indar handia izan zuen; ANVko sortzaileetako bat, Luis Urrengoetxea, Zornotzakoa zen eta jarraitzaile ugari izan zituen Zornotzan. PNV eta ANV zertan desberdintzen ziren aipatzen du.

Transkripzioa

- Egon zan Zornotzan egon zan nazionalista asko, ezta? Ta hemen egon zan ademas PNV fuerte eta gero egon zan be bai ANV, ze horko dirijente bat izen zan herrikoa, Luis Urrengoetxea, oin kalie deko Zornotzan, ba bera izen zan fundatzaille ANVkoa, ta bueno ba egon zan Zornotzan jente asko beren.

- Ta sedie euki eban ANVn, bakotzixe moduen ba ANVn?

- Uste dot baietz, ta nire aitte izen zan ANVkoa, baia ez naz ez dekogule gogoratu bez aitteri. Ta nire aitte moduen pillo bat Zornotzan, izen ziren, klaro izen zien "los no" PNV izen zan "cátolico" ta honek izen zien ba elizie ta honek geuzek aparte, ezta? ta egon zan Zornotzan ze karo jente asko Luis Urrengoetxea izen zan bertokoa eta karo beti beti jente gehixau, izen zan abogaue.

3. Zornotzan izandako joera politikoak

- **Erref:** AMO-105/013
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:23:03. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Nazionalismoaz gain, baziren beste zenbait joera politiko Zornotzan: karlistak, sozialistak, falangistak... Joseanen aitona Etxanoko alkate izan zen karlisten aldetik.

4. Gose garaian goserik ez zuen pasa

- **Erref:** AMO-105/015
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:26:06. **Bukatu:** 00:27:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Lehen maizter ziren etxean eta errenta nola ordaintzen zuten aipatzen du. Goserik ez du pasa izan Joseanek, beti eduki izan baitute janaria etxean. Garai hartan zer jaten zuten aipatzen du.

5. Okela kontserbatzeko aska

- **Erref:** AMO-105/017
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:29:07. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Okela kontserbatzeko, gatz artean sartzen zuten aska batean. Aska non izaten zuten aipatzen du. Etxanoko Nafarroan hainbat etxe zeuden eta baserri bakarra beraia zen.

Transkripzioa

- Frigorifiko barik nun sartzen zenduen okela?
- Jode, gatz artien asko, gatz artien zezina moduen. Askak, aska baten.
- Askatan.
- Aska batean.
- Emaztea; pernillek-eta.
- Ba pernillek eta pernille be, hamengo pernille.
- Etxeko ze partetan gordetan zan, guk etxien bertan, sartukeran etxera, han egon zan askie ta han. Ta ba segun bakotzak nun euki zeuen.
- Baiña askotan esaten dabe etxeko leku humedoena edo freskoena.
- Guk han jeneralmente, ta hori.
- Baserri asko euezan han, Nafarroan?
- Ez esan dotsut bizi giñen, bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, zortzi edo bederatzi, bederatzi familiek, ez baserriek, baserri-baserrie bakarrik egon zan bat bakarrik, gurie. Ta bestie izen zan etxie, etxiek, etxe bat handixe, ta han bizi zan hiru famili, lau familie. Baia baserri-baserri gu bakarrik.

6. Gurasoak Baskonian eta Bar Gloria lanean

- **Erref:** AMO-105/021
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:36:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Gurasoek gerra ostean Baskonian egiten zuten lan. Gerora, Zornotzan Bar Gloria jarri zuten eta ama aritu zen han lanean.

7. Txikiteoko ohiturak

- **Erref:** AMO-105/025
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:39:59. **Bukatu:** 00:42:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Zornotzako txikiteroak zer tabernatan ibiltzen ziren aipatzen du. Gehienbat ardoa edaten dute txikiteroek: lehen ardo zuria, baina gerora pixkanaka ardo beltza. Txikiteoko edalontziak nolakoak izan diren azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Taberna asko egongo zan Zornotzan.
- Lar, lar, joe...
- Ze izeten zan txikiteruen rekorridue?
- Txikiteruek han "Cojo"n aldetik , "Las hermanas, Kaiku". Ez zan egon oingo moduen, izen zan herrixe bueltie emoten dogu jentie, danok. Eta jentie ba leku guztidxetara sartuten giñen. Ez zan izeten oingo moduen "la calle tal", ez zan izen holan, izen zan ba herri guztidxen... Además danak egon giñen hirurehun metro "circunvalación" eta "circunferencia" hor egon giñen danak, danak.
- Eta jentie ze edaten eban gehidxen?
- Ardaua.
- Baltza?
- Lelengotan zuridxe, eguerdietan zuridxe. Oin edaten dogu baltza, baia lelengotan zuridxe edaten giñun. Bai, bai, zuridxe, baia danok. Ta apurke-apurke hasi giñen itziten ta gero oin danak baltza, batzun batzuk edaten deu txakoliñen bat edo, baia baltza.
- Ta txikito basoatan?
- Bai.
- Zelakoak izeten zien?
- Bueno, oin basue be eukin giñun, horrek lodidxe, horrek lodidxe txikiteo, baia horrek kendu ein zien gitxi, horrek gitxi. Gero normalak, baso normalak.
- Txikitxuek-edo?
- Txikitxuek ez, basue. Baia botaten die ba tangadak, osea txikito bat hartun pitxerra eta "txaka-txaka-txaka" edo botillie-ta. Ez egoten zan Zornotzan ambiente politte, osea jentie domeketan etorten zan jentie badakizu Arratie aldetik eta hortik etorten zan jentie ta bueno, "buen ambientillo" egoten zan han, ondo, ondo, ondo-edo.

8. Kuadrilla handiak

- **Erref:** AMO-105/026
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:42:09. **Bukatu:** 00:42:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Kuadrillan 46 izan dira beraiek; txikiteoan 20 elkartzen ziren normalean.</p>

Transkripzioa

- Eta kodrillan eta beti koadrilla bardiñek edo bakoitzien bategaz?

- Ez, ez,ez. Koadrillie gu izen gara berrogeta sei koadrillen.
- Emaztea: Tabernatan basurik bez ya.
- Berrogeta sei koadrillen?
- Koadrillen baten bai. Hori izen zan "el tope". Baia juntetako hoge txikiteoan, hoge, hori normala.
- Emaztea: Tabernatan basurik be ez zan egoten honek sartzen zienien.
- Hoge, badiñotsut, ze izen zan.
- Emaztea: Ta oniño batzuk segiten dabe, ez pentseu
- Bai, baia ez da lehengoko moduen.
- Emaztea: Batzuk gaixotu, beste batzuk hil, eta beste batzuk... zu!
- Oin ikusten bozun koadrille bat sei, sei-zortzi ya da koadrillie ya.

9. Zornotzan ostatu hartzeko

- **Erref:** AMO-105/028
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:43:58. **Bukatu:** 00:44:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Taberna batzuetan ostatu-zerbitzua ematen zuten; horretarako, nola moldatzen ziren aipatzen du.</p>

Transkripzioa

- Taberna askotan igual pentsiñoak eta be egongo zien kanpotarrantzat eta obreruentzat-eta.

- Bueno, bai, bai egoten zien. Leon eukitten euen gelak, [...] emoten zeuen janarie eta eukin zeuen gela batzuk ba ospedaje edo hori ta "Cojo"nien be bardin, baia ez zan egon, lar ez zan egon Zornotzan, gehidxena, gehidxena izen zan habitaziñoak. Bueno, habitaziñoak topeten ziren kanpotik ya euki batzuk, "Oye, ezetuten dozu?". Bai, baia ez euren negozihoa. Eurek janarie emon eta gero lo eitten beste leku batera, beste leku batera. Baia bueno. Zornotzan beti egon da lekuek jateko-ta: "Cojo"nien, Leonenien... egon diez lekuek.

10. Txikiteoa ordaintzeko moduak

- **Erref:** AMO-105/035
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Txikiteorako dirua lortzen zuten handik eta hemendik. Edariak nola ordaintzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Hor txikiteorako dirue eta nundik ataten zenduen?

- Ostu. Keba, danok pagie euki geñun. Batzuk biherrien beste batzuk estudixetan, baia danok paga handixe edo txikiñe danok pagie. Ta euki

zeuenak dirue asko, ipintzen zan diru asko ta eukitzen zeuenak diru gitxi ba diru gitxi, izen zan "una comunidad bien avenida".

- Ze eitten zenduen botie jarri edo rondaka?

- Rondaka edo rondaka, bai bueno ba beti, "koño, hau ez deko dirurik", ta danok page ta beste bat, lagundu.

- Alkarrerri lagundu.

- Bai, bai. Horretan beti izen gara danok ademas herrikoak eta danok lagunek eta danok.

11. Etxean egindako pilotak edo Erregenetakoak

- **Erref:** AMO-106/001
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola

Laburpena:

Futbolean eta esku-pilotan jokatzen zuten. Sarritan eurek egiten zituzten pilotak: potroa satu, artilearekin babestu eta josi. Erregenetako oparia beti izaten zen berdina: gomazko pilota. Horrez gain, arineketan ere jolasten zuten edo frutak lapurtzen.

12. Udan errekan jolasten eta arrantzan

- **Erref:** AMO-106/003
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:04:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Udan errekan ibiltzen ziren jolasten, goiko presan edo elizaren ondoan. Inoiz mozkorra kentzera joaten ziren erreka eta behin baino gehiagotan biluzik harrapatu zituzten mezara zihoazen emakumeek. Horrez gain, arrantzan ere ibiltzen ziren: karramarroak, ezkailuak, barboak, aingirak... Alokatzeko txalupa ere egon zen errekan.

13. Errekako arrantza

- **Erref:** AMO-106/006
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:08:02. **Bukatu:** 00:10:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Karramarroak eskuz harrapatzen zituzten, salabardoarekin ("erretelegaz") edo butroiarekin ("butrinoagaz"). Ezkailuak "remangiegaz" harrapatzen zituzten. Nahiz eta debekatuta egon, arrantza ugari hartzen zuten. Loinak ere mordoa hartzen zituzten.

14. Zornotzako palako pilotariak

- **Erref:** AMO-106/007
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:10:24. **Bukatu:** 00:13:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Frontoia orain dagoen leku berean egon zen, baina estali barik. Frontoia ondoan alondegia zegoen. Zornotzan, palako zenbait pilotari egon zen, batzuk profesionalak: Amorebieta IV, Ugalde, Aurtenetxe... Pilotara baino, paletarako zaletasuna eduki zuten herrian.

15. Bilboko Maristetan ikasi zuen

- **Erref:** AMO-106/012
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:22:11. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Bilboko Maristetan ikasi zuen Joseanek. Bilboko izekorenean ematen zituen astegunak orduan. Bederatzi bat urte zituela hasi zen Bilbon. Asteburuetan tranbia hartzen zuen Arriagan Zornotzara etortzeko. Maisu onak eduki zituen Maristetan, fraideak.

16. "Profesor mercantil" ikasi zuen Bilbon

- **Erref:** AMO-106/014
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:25:34. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ikasketak hogeita bat urte zituela amaitu zituen, "profesor mercantil" egin zuen eta. Bilboko Komertzio Eskolan ikasi zuen. Ikasketak amaitu zituenean soldadu joan zen eta gero beharrera banketxera.

17. Zornotzako banketxeak

- **Erref:** AMO-106/016

- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:29:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Bakuan egon zenean, bezero gehienak langileak zituen: pisuak erosi, etab. Orduan bost mila biztanle inguru zituen Zornotzak. Asko hasi da herria ordutik. Hasieran lau banketxe baino ez ziren egon, baina gero ugaritzen hasi ziren.

18. Zornotzan erdara ugari

- **Erref:** AMO-106/018
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:31:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Asko erdaldundu da herria, orain gaztelania eta errumaniera asko entzuten dira. Beti entzun izan da erdara herrian. Hala ere, gaur egun euskara asko entzuten da gazte jendearen artean.

19. Udan freskatzeko, iturriko ura

- **Erref:** AMO-106/020
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:35:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Taberna jarri zutenerako ura eta argia eduki zuten, kalean bizi ziren eta. Beti ezagutu izan du ura Zornotzako etxeetan. Hala ere, udan iturriko ura hartzen zuten freskatzeko. Urgozo esaten zioten Zornotzako iturriari.

20. Frankisten izenak kaleetan

- **Erref:** AMO-106/022
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:37:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Lehen Jaime Jauregi izena zeukan euren kaleak, frankista batena. Horrelako kale asko egon zen Zornotzan, Jeneral Mola esaterako. Franco hil zenean, izen guztiak aldatu zituzten: Txiki Otaegi, Gudari kalea... Orain, oster, horiek ere kendu nahi dituzte.

21. Zornotzako parkea lehen

- **Erref:** AMO-106/023
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:37:14. **Bukatu:** 00:38:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Parkean beti egon izan da Urgozo iturria eta baita kioskoa ere, nahiz eta lekuz aldatu duten. Lorategi modukoak zeuden lehen, futbolean-eta jokatzeko. Alde batean, goikoleatarren jauregia zegoen eta hau bota zutenean parkea handitu egin zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com